

Esportazioen prezioak % 0,9 hazi ziren 2019ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

Inportazioen kasuan, prezioak % 2,4 goratu ziren

Esportazioen prezioek % 0,9ko hazkundera izan dute 2019ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Eustatek egindako datuen arabera. Inportazioei dagokienez, aldakuntza positibo hori % 2,4koa da.

Produktu *energetikoak* eta *ez-energetikoak* bereizten baditugu, ikusiko dugu esportazio energetikoen prezioak % 1,6 jaitsi zirela 2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta ez-energetikoen prezioak, berriz, % 1,3 igo zirela.

Inportazioen kasuan, produktu energetikoak % 4,8 hazi dira hiruhileko arteko tasan, eta ez-energetikoak % 1,8.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren balio unitarioaren indizeak, xede ekonomikoaren arabera (%). IV/2019 (b)

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	0,9	0,7	2,4	2,8
Produktu energetikoak	-1,6	-1,2	4,8	4,3
Produktu ez-energetikoak	1,3	0,9	1,8	2,7
Kontsumo-ondasunak	4,2	6,1	2,0	0,8
Kapital-ondasunak	-2,1	-0,6	2,8	4,2
Bitarteko-ondasunak	0,7	-0,3	2,4	2,8

(b) Behin-behineko datuak.


Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen xede ekonomikoaren arabera sailkapenaren arabera, Kapital Ondasunen prezioak % 2,1 jaitsi ziren, Bitarteko Ondasunenak % 0,7 igo ziren, eta Kontsumo Ondasunenak % 4,2 igo ziren, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Inportazioei dagokienez, Kapital Ondasunen prezioak % 2,8 igo ziren, Bitarteko Ondasunenak % 2,4 eta Kontsumo Ondasunenak % 2,0.

Esportazioen xede diren eremu geografikoak kontuan hartuta, 2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta prezioak ia eremu guztietan igo ziren, bai Euro eremuan (% 2,1), bai EB-28n (% 1,9) eta bai ELGAN (% 1,5); salbuespena Munduko besteetan gertatu zen, non % 2,2 jaitsi baitziren. Inportazioei dagokienez, hiruhileko arteko prezioen igoerak izan ziren eremu geografiko guztietan, eta horien artean Euro eremua nabarmendu zen (% 3,4).

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, esportazioen prezioak % 0,7 igo ziren, eta inportazioenak % 2,8.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Esportazio *energetikoak* % 1,2 jaitsi ziren, eta *ez-energetikoak* % 0,9 igo, 2018ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Inportazioen kasuan, prezioen igoera % 4,3koa izan zen produktu *energetikoentzat* eta % 2,7koa *ez-energetikoentzat*.

Xede ekonomikoaren arabera eta esportazioentzat, Kontsumo Ondasunak urte batetik bestera % 6,1 hazi ziren, eta Kapital Ondasunak eta Bitarteko Ondasunak, berriz, % 0,6 eta % 0,3 jaitsi ziren, hurrenez hurren. Inportazioei erreparaturaz gero, Kontsumo Ondasunen prezioak urte artean % 0,8 hazi ziren, eta Bitarteko Ondasunen kasuan % 2,8 eta Kapital Ondasunen kasuan % 4,2.

Bestalde, egiaztatu da esportazioen prezioek gora egin dutela ELGAN (% 0,8) eta Munduko besteetan (% 0,4), aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, eta igoera hori, inportazioen kasuan, eremu geografiko guztietara hedatu dela, Euro eremua pixka bat nabarmenduta, % 3,8ko igoerarekin.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren balio unitarioaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). IV/2019 (b)

	ESPORTAZIOAK		IMPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	0,9	0,7	2,4	2,8
Euro eremua	2,1	-0,5	3,4	3,8
EB-28	1,9	-0,3	2,7	3,6
ELGE	1,5	0,8	3,3	3,6
Munduko gainerakoa	-2,2	0,4	0,8	1,1

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

URTEKO BALANTZEA:

2019an esportazioen prezioak % 1,9 hazi dira aurreko urtearekin alderatuta. Inportazioen kasuan % 2,3ra iritsi da igoera.

Produktu *energetikoek* izan dituzte igoera handienak beren prezioetan, bai esportazioetan (% 3,6), bai inportazioetan (% 4,6), baina oso urrun 2018. urtean erregistratutakoetatik, non bi kasuetan % 20 baino gehiago izan baitziren. Produktu ez-energetikoek ere gorakada izan dute, baina neurritsuagoa; hala, bi fluxuetarako –esportazioak eta inportazioak– % 1,7koa da.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren balio unitarioaren indizeak, xede ekonomikoaren arabera. Urteko aldakuntza-tasak (%). 2019 (b)

	ESPORTAZIOAK	IMPORTAZIOAK
	2019/2018	2019/2018
Indize orokorra	1,9	2,3
Produktu energetikoak	3,6	4,6
Produktu ez-energetikoak	1,7	1,7
Kontsumo-ondasunak	3,0	-1,1
Kapital-ondasunak	1,4	4,7
Bitarteko-ondasunak	1,7	2,4

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen norako ekonomikoaren arabera kontuan hartuta, ikusten da esportazioetarako hiru ondasun-moten prezioek gora egin dutela, eta Kontsumo Ondasunak nabarmentzen dira, % 3,0ekin. Inportazioen artean, Bitarteko Ondasunak igo egin dira (% 2,4) eta, batez ere, Kapital Ondasunak (% 4,7), eta Kontsumo Ondasunak, berriz, jaitsi (-% 1,1).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren balio unitarioaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2019 (b)

	ESPORTAZIOAK	IMPORTAZIOAK
	2019/2018	2019/2018
Indize orokorra	1,9	2,3
Euro eremua	0,1	2,0
EB-28	0,1	1,5
ELGE	1,2	2,2
Munduko gainerakoa	5,2	2,6

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Esportazioei dagokienez, 2019an prezioen igoerarik handiena izan duen eremu geografikoa Munduko besteak deritzona da (% 5,2), eta Euro eremuan eta EB-28n, berriz, gutxieneko aldakuntza dago (% 0,1). Inportazioei dagokienez ere, aztertutako eremu geografiko guztietan, prezioek gora egin dutela egiaztatu da; beste behin ere, Munduko besteak deritzona nabarmendu da (% 2,6), eta ondoren ELGA (% 2,2).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62